

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARAGIAREN EGOKITZAPENA, INDUSTRIA-ERABILERARAKO	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0353		
Lanbide-arloa	ELIKAGAIEN INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harakintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harakintza eta haragi-produktuen elaborazioa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Haragiaren egokitzapena eta teknologia	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Haragiaren egokitzapena, merkaturatzeko (zeharkakoa)	Iraupena	70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

: Prestakuntza-atal hau bat dator UC0296_2 : HARAGIA MERKATURATZEKO EDO INDUSTRIA-ERABILERARAKO EGOKITZEA, ETA HARAGIAREN TRAZABILITATEA BERMATZEA gaitasun-ataleko LB4, LB6 eta LB8 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hotz industrialak aplikatzeko prozedurak aztertzea eta produktuak hoztea, izoztea eta mantentzea.

EI1.1 Industrian kontserbazio-tratamendu moduan erabiltzen diren hozteko, izozteko eta mantentzeko prozeduren oinarria deskribatzea eta ezaugarri nagusiak bereiztea.

EI1.2 Hozteko eta izoztutako haragi-produktuen motak eskatzen duten hotz-tratamenduaren formekin eta mailekin lotzea.

EI1.3 Hotz-tratamenduen aplikazioa aurretiazko prestakuntzako eta elaborazioko eragiketekin, kontserbazioko bestelako tratamenduekin eta ontziratzearekin lotzea.

EI1.4 Tratamendu-parametroak justifikatzea hozteko edo izoztutako produktu-mota guztietarako.

EI1.5 Hozteko, izozteko edo mantentzeko prozesua behar ez bezalakoa izan duten produktuetan detektatzen diren anomalia ohikoenak eta aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak ezagutzea.

EI1.6 Behar bezala zehaztutako hozte eta/edo izoztearen kasu praktiko batean:

- Ganbera edo ekipamendu egokiak aukeratzea, eta horietan produktuaren hozte-, izozte- eta mantentze-parametroak finkatzea.
- Ganberak, tunelak eta izozkailuak kargatzeko/ixteko eta hornitzeko eragiketak behar bezala egitea.
- Hozte- eta izozte-prozesuak kontrolatzeko grafikoak balioestea (tenperatura, denbora, sartzeta) eta egin beharreko doikuntzak ondorioztatzea.
- Prozesu osoan mantentze- edo kontserbazio-lanak egitean kontrol-parametroen (tenperaturen, hezetasunen eta gasen oreken) egiaztatzenak sistematizatzea.
- Anomalien presentzia detektatzea eta neurri aringarriak proposatzea.
- Produktuak manipulatzeko eta ekipamenduak maneiatzeko higienari eta segurtasunari buruzko neurri espezifikoak aplikatzea.
- Hotzaren bidez tratatutako produktuaren ezaugarriak eskatutako espezifikazioekin alderatzea.

A2: Laginak hartzeko teknikak identifikatzea, lehengaien eta haragi-elaboratuen kalitatea egiaztatzea.

EI2.1 Haragi-industrian hartzean eta bidalketak egitean erabiltzen diren laginketako prozedurak eta metodoak azaltzea eta horrekin lotutako tresnak ezagutzea eta maneiatzea.

EI2.2 Laginak eratzeko, markatzeko, lekuz aldatzeko eta gordetzeko sistemak identifikatzea.

EI2.3 Laginak hartzeko modua (estrakzio-kopurua, -maiztasuna, -lekua eta -tamaina) lagin homogeneoa eta adierazkorra lortzeko premiarekin lotzea.

EI2.4 Laginak hartzeko behar bezala definitu eta zehaztutako kasu praktiko batean, lehengaiak hartzeko unean, prozesuaren barruan edo azken produktua lortzean:

- Laginketa-protokoloa interpretatzea.
- Tresna egokiak aukeratzea, prestatzea eta erabiltzea.

EI2.5 Laginak lortzeko eragiketak toki, modu eta une egokietan egitea.

EI2.6 Laginak identifikatzea eta eramatea.

Edukiak

1. Haragiaren prestaketa industria-erabilerarako.

- Animalia baten muskulu-motak.
- Kanalen zatiketa. Industrian erabilitako zatiak.

- Animalia handien zatiketa.
- Animalia txikien zatiketa.
- Hegaztien hezurgabetzea eta zatiketa.
- Ebaketa-tresnak eta haragi-piezen prestaketa industrian.
- Muskuluaren ezaugarriak hilketaren ondoren eta haragia heltzeko aldian.
- Eguraste-ganberak. Kontrol-parametroak. Heltzea. Prozesuaren kontrola.
- pH-aren eta haragiaren egoera sanitarioaren arteko lotura.
- Haragiaren balioespena.
- Animalien erraien eta hondakinen industria-erabilera.
- Haragi-piezen prestaketa-lineak industrian. Koordinazioa eta denborak.
- Haragi-piezen kalitate-neurriak eta balioespena industria-erabilerarako.

2. Haragiaren kontserbazio- eta mantentze-lanak industrian.

- Izozte- eta hozte-ganberak. Oinarri fisikoak.
- Hotz industrialaren aplikazioa: hoztea eta izoztea.
- Hotz-ganberak. Kontrola eta mantentze-lanak. Kontrol-parametroak. Kontrol-grafikoak. Doikuntzak.
- Haragi-piezen eta haragi-deribatuen maneiua ganberetan. Kargatzea eta ixtea.
- Hotzeko eta izoztutako haragi-produktuak. Tratamendu-motak eta -mailak.
- Anomaliak eta neurri zuzentzaileak. Temperatura, hezetasuna, gasen oreka.
- Ganbera eta tuneletako higieena eta segurtasuna.
- Ekipamendu eta tresnen mantentze-lanak.
- Hotzaren bidez tratatutako produktuaren ezaugarriak eta eskatutako espezifikazioak.

3. Laginak hartzea haragi-industrian.

- Laginketa-teknikak. Protokoloa eta kontrola.
- Laginak hartzeko tresnak.
- Laginak identifikatzeko, erregistratzeko eta eramateko sistemak.
- Laginak markatzea eta kontserbatzea.
- Laginak hartzeko tresnen mantentze-lanak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0352 gainditua izan behar du: Haragiaren egokitzapena, merkaturatzeko (zeharkakoa)

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harakintza eta haragi-produktuen elaborazioa